

GI PUZKOA ETA EUROPAR BATASUNA



37. Informazio Buletina 2009ko Iraila





NABARMENDU BEHARREKOA

Eskualdeetako lantaldearen maila anitzeko gobernantzari buruzko liburu zuria

Europako integrazio-prozesuaren arrakastaren giltzarri nagusietako bat da gobernantza. Erkidegoaren agenda aplikatu eta erronka orokorrei erantzuteko helburuarekin Europaren gobernantza moduak botere-maila desberdinen arteko lankidetzaz bermatzen badu, Europa indartsua izango da; bere instituzioak legitimoak eta bere politikak eraginkorrak izango dira, eta herritarrek inplikatu eta parte hartuko dute.

Honela, Eskualdeetako Lantaldearen Liburu Zuriak «Europa elkarrekin eraikitze» borondatea zabaldu du eta bi helburu estrategiko nagusi ezarri ditu: prozesu europarrean parte-hartzea laguntzea eta erkidegoaren ekimenaren eraginkortasuna indartzea.

Eta gomendioen artean, erkidegoaren erreforma estrategiko garrantzitsuekin batera lurraldeko ekintza-plan adostua nola demokrazia parte-hartzailea laguntzeko tresna egokien ezarpena beharrezkoa dela azpimarratu du.

Halaber, Eskualdeetako Lantaldeak Europan maila anitzeko gobernantza aplikatzeko modurik egokienari buruzko kontsulta orokor bat zabaldu du, azaroaren 30era arteko epea duena.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2009:211:0001:0027:ES:PDF>

Parte-hartzea:

governance@cor.europa.eu

Eurostaten 2009ko eskualde urtekaria

Eurostaten Eskualde Urtekaria erreferentziako iturri estatistikoa da Europako eskualdeen egoera eta ezaugarriak aztertze orduan.

2009 urteko txostenean jasotako eta aztertutako informazio estatistikoa oso zabala da eta 10 kapitulu nagusitan biltzen da: biztanleria, hiri europarrak, lan-merkatua, barne produktu gordina, etxeetako kontuak, enpresen egiturazko estatistikak, informazioaren gizartea, zientzia, teknologia eta berrikuntza, hezkuntza, turismoa eta nekazaritza.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/product_details/publication?p_product_code=KS-HA-09-001



Naturba, interreg iv b sudoe programan hautatutako proiektua

INTERREG IV B SUDOE Programaren baitan, Europar Batasunak Gipuzkoako Foru Aldundiaren proiektu bat aukeratu du. Proiektua erabilera hiritarren eta lurzoru urbanizaezinari dagozkion erabileren (nekazaritza-abeltzaintza eta natura-guneak, esaterako) arteko trantsizioaren arazoak aztertzean oinarritzen da. Proiektuaren izena NATURBA da.

Proiektuaren helburu nagusia landaren eta hiriaren arteko proiektu partekatua eta jasangarria sustatzea da, metodologia berriak garatuz. Proiektuak Tolosako eta Lisboako hiriak barneratzen ditu, Gipuzkoako eta Murtziako eskualdeekin batera. Gipuzkoaren kasuan, azterketaren eremua Jaizkibel eta Aiako Harrien arteko gunea da.

Bukaerako helburua, SUDOE espazioko udalerrri handien eremuan lurraldearen antolamendu eta kudeaketa tresna berriak sortzea, saiakerak egitea eta hedatzea da. Halaber, NATURBA SUDOE udalerrri eta adituen sarea egituratzea, hiri-presio handia jasaten duten lurraldeetan natura-guneak babesteari buruzko "esku-hartzeko protokolo komuna" modu esperimentalean aplikatuko duena.

Europako Hego-mendebaldeko Eremuaren Lurralde-lankidetzeta Programak (SUDOE) eskualde garapena bultzatzen du, FEDERen bidez nazioz haraindiko proiektuak aldi berean finantzatuz. Programaren ardatz nagusienetakoa, hiri-garapen jasangarriari bultzada ematea da, nazioz haraindiko lankidetzaren eragin positiboak aprobetxatuz. Hain zuzen ere, bertan barneratzen da NATURBA programa.

Informazio gehiago:

<http://www4.gipuzkoa.net/corporac/gnet/actNoticia.asp?c=425&p=index.html&i=e>

<http://www.interreg-sudoe.eu/ESP>



KOHESIO-POLITIKA

Klima-aldaketa: eskualde-erantzunak

Eskualde-politikaren zuzendaritza orokorraren Panorama aldizkariaren udazkeneko aleak, klima-aldaketaren aurkako borrokan erkidegoaren eskualde-politikaren eragina aztertzen du.

Eta hainbat artikuluren artean, alor honetan interesgarriak diren bi ekimen aurkezten ditu: Frantziako La Reunión irla eta Alemaniako Burgerland eskualdeko Güssing hiria.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panora_es.htm

Kohesio-funtsari (2008) buruzko 2008ko urteko txostena

2008an, hamabost estatu kidek (2004an eta 2007an gehitu ziren hamabi estatu kideak, eta baita Grezia, Espainia eta Portugal ere) eskura zitzaketen Kohesio-Funtsaren laguntzak eta aurrekontua 1.937 milioi eurokoa zen.

Urteko txostena 2000-2006 aldiaz 2008an egindako finantza-betearazpenean oinarritzen da eta beste atal batzuetan, inguru ekonomikoa eta baldintzapeko egoera, finantza-ikuskaritza eta – zuzenketak, estatu kideek jakinarazitako irregulartasunak, ebaluazioa eta informazioa eta publizitatea aztertzen ditu.

Informazio gehiago

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0465:FIN:ES:PDF>



KOMUNITATEKO POLITIKAK

Garapenaren aldeKO batasunaren esparru politiko komun baterantz

Ekonomia- eta finantza-krisiaren hirugarren bolada garapen bidean dauden herrialdeetara iritsi da, herrialde horien hasiera batean aurreikusten zena baino ondorio handiagoak eraginez. 2009ko bigarren seihilekorako eta 2010erako aurreikuspenak ez dira pozgarriak. 2009an, gutxienez 50 milioi pertsona gehiago murgilduko dira pobrezian.

Abian dauden joeretatik abiatuz, Europar Batasunak Garapen Politikaren Koherentziaren (CPD) ikuspegi estrategikoagoa, sistematikoagoa eta lankidetzari bideratua hartzeko unea iritsi dela uste da.

Txostenaren arabera, garapen bidean dauden herrialdeek pobrezia murrizteko eta Milurtekoaren Garapeneko Helburuak eskuratu ahal izateko egiten dituzten ahaleginak laguntzeko orduan bete beharreko paper ezinbestekoa du laguntzak; baina bakarrik egin ezean, ez da nahikoa izango.

Ezinbestekoak diren hainbat gai orokorri heltzeko orduan, beste hainbat esparru politikotan bere aukera politikak garatu daitezzen eragin positiboak indartzeko askoz ere gehiago egin dezake EBak. Gainera, AODetik ez datozen finantza-fluxuen garapenaren indarra aprobetxatu dezake eta eraginkortasun handiko ikuspuntua izan daiteke: «Helburua mugatu eta tresnak zabaldu behar ditugu»

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0458:FIN:ES:PDF>

EUROPEANA: datozen urteetarako erronkak

Europeana (liburutegi, museo eta on-line artxibo europarra) 2008ko azaroan inauguratu zen Lantaldeak liburutegi digitalen inguruan izandako ekimenaren baitan. Helburua, Europako kultura eta zientzia ondarea Internet bidez guztiontzat eskuragarria izatea zen.

Agiriak Europeanaren garapenaren hurrengo fasea eta etorkizunerako norabidea aztertzen ditu. Bertan, hurrengo urteetarako erronka nagusiak azaltzen dira, bi gai hauen inguruan: 1) Europeanaren edukia aberastea jabari publikoko nola kalitate handiagoa duten eta erabiltzaileentzako erabilgarri diren egile eskubideei lotutako materialekin, eta 2) finantzazio eta gobernantza eredu jasangarri bat.

Helburua, Europeanak eta digitalizazio, linean erabilgarritasuna eta babes digitalaren azpiko politikek kultura europarrari Interneten ikuspen iraunkorra bermatzea da eta gure ondare komun eta anitza etorkizuneko informazioaren azpiegitura europarraren zati bilakatzea.

Helburu hau erdiesteko modurik egokiena bilatzeko iritziak jasotzeko xedearekin, Lantaldeak kontsulta abiatu du eta epea azaroaren 15ean bukatzen da.

Informazio gehiago

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0440:FIN:ES:PDF>

Kontsulta:

http://ec.europa.eu/information_society/activities/digital_libraries/index_en.htm

**Batasunaren 2008ko aurrekontuari buruzko finantza-txostena**

Txostenak 2008ko aurrekontuen betearazpena aztertzen du, "finantzazio egonkorra, gaur egungo ezegonkortasun aldia" epigrafe orokorraren izenburupean.

Inbertitutako aurrekontu-baliabideen 116,5 mila milioi euroetatik (Errenta Nazional Gordinaren % 0,94), aurrekontu horien % 40ko inbertsioa azpimarratzekoa da, hain zuzen ere, enplegua, hazkundera eta lehiakortasuna eta nekazaritza-ordainketen egonkortasunari (guztizko gastuaren % 35) lotutako jarduketetan inbertitutakoa.

Informazio gehiago (ingeleza / frantsesa):

http://ec.europa.eu/budget/documents/2008_fr.htm?go=t3_2#table-3_2





e-LIBURUTEGIA

Europaren hazkunde eta enplegu estrategiaren dimentsio soziala

Europako Batzordeko Gizarte Babesaren Batzordearen txostenak adierazten duenez, EBren hazkunde eta enplegurako 2010 ondoko estrategiak gizarte kohesioaren helburuei arreta handiagoa jarri behar die.

Azken hamarkadan hazkunde ekonomikoari eta enpleguari lotutako bizi baldintzak hobetu diren arren, pobrezia eta gizarte-bazterketa arazo garrantzitsuak dira herrialde gehienetan, nahiz eta euren artean desberdintasun nabarmenak izan. Txekiar Errepublikan eta Holandan pobrezia-tasak % 10 artean daude eta Bulgaria, Letonia eta Errumanian, aldiz, % 20 baino altuagoak dira.

Egoera horri erantzunez, barneratzeke estrategia aktiboak ezinbestekoak dira, bai talde ahulenei laguntzeko eta baita giza kapitalaren galerak mugatu eta etorkizuneko hazkundearen indarra babesteko ere. Zentzu honetan, aurreko esperientzietatik ikasitakoaz abiatuz, ezinbestekotzat jotzen da lan-merkatuaren segmentazioa saihestea eta enpleguaren kalitatea sustatzea.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?langId=es&catId=89&newsId=596&furtherNews=yes>

Europaren azterketa ekonomikoa 2009

OCDEren txostenak dioenez, Europak erantzun azkarra eman dio krisiari, nahiz eta hainbat ebidentziek estatu kideak atzeralditik uste baino lehen aterako direla aditzera eman.

50 urtetan izandako atzeraldi okerrenaren ostean, Europar Batasunak erreformak bizkortu behar dituela adierazten du, epe luzera hainbat alorretan hazkundera hobetzeko; hala nola, berrikuntza indartzea, merkatu bakarra garatzea eta karbono maila baxua duen ekonomiarantz mugimendua abiaraztea.

Era berean, egiturazko erreforma berriak beharrezkoak direla uste du, etorkizuneko finantza-krisiak prebenitzeko eta ekonomia emaitzak hobetzeko. Hala nola, finantzen kontrol- eta ikuskaritza-sistema hobetzea, epe luzera finantza publikoen jasangarritasun handiagoa eta merkatu europarrak mundura gehiago zabaltzea.

Informazio gehiago (ingelese):

http://www.oecd.org/document/50/0,3343,en_2649_34111_43709451_1_1_1_37443,00.html



Adineko langileen egoera industria-aldaketaren aurrean

Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearen txostenak jardunbide egokiak jasotzen ditu eta horiek aplikatzeak 50 urtetik gorako langileak lan-merkatuan mantentzen laguntzen du, bereziki, legezko erretiroaren adinera hurbiltzen direnak. Halaber, langile horiek kontratatzea sustatzen du. Eta pertsona horiek kontratatzeak eskaintzen dituen aukerei eta abantailei dagokienez, enpresariak eta adin hori duten langileak, euren karreraren erdialdera hurbiltzen direnean, eta azken finean, baita gizarte osoa ere, sentsibilizatu beharko liratekeela baieztatzen du.

Adineko pertsonen inguruko ekintza hauek guztiak enplegua laguntzeko neurri guztiak mantenduz abiatu beharko lirateke, bereziki lan-merkatu sartzeko diren belaunaldi gazteei dagokienez.

Eta hainbat gai proposatzen ditu: zahartze aktiboari laguntza; pizgarriak ematea, bai adineko langileei eta baita horiek kontratatzen dituzten eta adineko pertsonak lan-merkatuan mantentzera animatzen dituzten enpresei; bizi- eta lan-baldintzak hobetzea (bereziki, lan fisikoari dagokionez) eta lan-merkatuan erakundeen konponbideak erabiltzea, adineko pertsonen kontratazioari modu egokiagoan egokitu ahal izateko.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2009:228:0024:0031:ES:PDF>





ADIERAZLEAK

Gipuzkoako eta europar batasuneko 2008ko per capita bpg

Eustaten eta Eurostaten balioespenaren arabera, Gipuzkoako 2008ko per capita BPG EB-27aren batez bestekoaren gainera dago 40,2 portzentaje-puntutan, erosketa-ahalmenaren parekotasun terminoetan (prezioen mailako desberdintasunak kontutan hartzen ez badira, desberdintasun hori 29,2 portzentaje-puntura murrizten da).

2008 urtean Gipuzkoa eta EBren arteko desberdintasuna zertxobait murriztu da, 2007an gehienezko historikora iritsi ondoren; 42,8 portzentaje-puntu, hain zuzen ere.

Gipuzkoaren eta EBren arteko pertsonako errentaren desberdintasuna nabarmen zabaldu da azken hamarkadan, 1998an 20,2 portzentaje-puntukoa baitzen.

Batasuneko 27 estatu kideen artean, soilik bik dute Gipuzkoak baino biztanleko BPG handiagoa: Luxenburgo eta Irlanda.

Informazio gehiago:

http://www.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0002500/ti_Biztanleko_BPGa_EAP_herrialde_eta_urte_aren_arabera_EU_27100_1998-2008/tbl0002542_e.html

http://www.eustat.es/elementos/ele0002100/ti_PIB_per_capita_por_territorio_historico_Precios_corrientes_base_2005__1980-2008a/tbl0002160_c.html

Europar Batasunaren aurreikuspen ekonomikoak

Europako Batzordeko iraileko batez besteko aurreikuspenek "atzeralditik ateratzen gara, baina etorkizunak zalantzagarri izaten jarraitzen du" baieztatzen dute. Horrela, urteko bigarren hiruhilekoan egoera ekonomikoa modu nabarian hobetu da.

Nolanahi ere, ziurgabetasunak bere horretan jarraitzen du, eta oso epe laburrean berreskurapenak positiboki harritu badezake ere, iraunkorra izango den ala ez ikusteko dago oraindik.

Zalantza betetako esparru honetan, 2009rako aurreikuspenak ez dira aldatu, BPG % 4 jaitsiz.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/economy_finance/thematic_articles/article15857_en.htm



Europar Batasunaren 2009ko urtekari estatistikoa

Eurostatek bere Urtekari Estatistikoa argitaratu du, eta bertan, Europar Batasunaren inguruko datu-base desberdinak jasotzen dira.

Hamasei alor nagusitan egituratzen da: ekonomia, biztanleria, hezkuntza, osasuna, bizimoduak eta ongizatea, lana, industria eta zerbitzuak, nekazaritza, basogintza eta arrantza, kanpo-merkataritza, garraioa, ingurumena, energia, zientzia eta teknologia, Europako eskualdeak eta datu estatistikoak eta politika europarrak lotzen dituen azken kapitulua.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/product_details/publication?p_product_code=KS-CD-09-001

